

Hilarria

Hilarria

Orokorki hilobi gaian ipinitako harriko monumentua, estalki, eraikin eta edergarri gisa. Ik. Harrespila; Trikuharria; Tumulu; Iruinarria.

Berezikiago, hildakoaren oroigarriko harri zutikakoa, hilobiaren gainean jartzen dena. Aspalditikoa da horrelako monumentua; antzinako Egipton ere ipintzen zuten. Europa zabal osoan aurki daitezke antzekoak. Euskal Herrian, berriz, oso zabaldua dago.

Bitakoak izan ohi dira: *gurutzearen tankerakoak, eta gizakiaren tankerakoak (gizonkarak), hau da, oinaren gainaldea diskoantzekoa duena. Euskaraz harri-gizonak ere deitzen dira horiek. Hilarri biribila deitzen ditu J.M. Barandiaranek. Ik. Hilobi-hilarriak.

Edergarri sinboliko ezberdinez horniturik egon ohi da diskoa: *triangeluak, *izarrak, *zirkulu zentruak, hegaztien irudiak, eguzki-gurpilak, *lauburuak, arrosatxoak, etab.

Edergarri horien sinbolozko balioaz gain, hilarria bere osoan da *sinbolo betea. Hildakoa eta horren etxea irudikatzen ditu hilarriak. Horrek nolabait bizirik irauten duelako eta hildakoa bere lurreko bizitzan izan zuen bizierarekin lotuta dagoelako us-tea agertzen du.

Ik. Hileta-erritoak.

Hildako fededun guztien oroipena

Ik. Arimen eguna.

Hildura

Sin.: Mortifikazioa

Izpiritubide aszetikoan maiz erabiltzen den hitza, ariketa aszetikoen (*barauaren, *haratuztearen, *abstinentzien, azotaldien eta bestelako) bidez gorputza eta horren *grina txarrak azpiratzea adierazteko.

Ik. Aszesia.

Hilen igandea

Alemaniaiko Eliza ebanjelikoan hildakoak gogoratzeko igande berezia, Eliz urtearen azkenekoa.

Ik. Arimen eguna.

Hilen judizioa

Heriotzondoko judizioaren ideia Egiptoko erlijioan aurki daiteke; horren bidez egiten zaio hildakoari justizia haraindikoz bizitzan, munduan egindako egite onen ala gaiz-

toen arabera, zoriona emanez ala zigorra ezarrit. Beste Herritan eta erlijiotan ilunago dago horrelako sinestea, edota ez dago batere horrelakorik.

Judaismoan agertzen da K.a. II. mendean judizio unibertsalaren ideia, hilen *piztuerarekin lotua.

Hortik igaro zen *kristautasunera, baita *islamismora ere. Baina kristautasunak bakoitzaren bakarkako judizioa ere sinesten du, heriotzondoa berehala gertatzen omen dena.

Bestalde, Itun Berrian eta kristautasuneko judizioa eskatologiari buruzko irakatsi osoarekin dago lotuta. Hori gertatzen ari da nolabait dagoeneko, Kristoren salbamenezko etorrerak azken aldia mundu eta historia hauean inauguratuak dituzte. Fededunak *salbamen-mezu horri eta Jainkoaren erreinuaren eskabideei buruz hartzen duen jarreran eta ematen duen erantzunean bertan datza judizioa.

Itun Berria Itun Zaharreko *apokaliptikako irudiak demitifikatzen saiatzen da. Joanen eritzian, judizioa sinestean ala ez sinestean datza: "Jainkoak bere Semea, mundua galtzeko ez, baina zeruratzeko bidali du. Hura sinesten duena ez dago galdua; sinesten ez duena, bai" (Jn 3,18) eta "Nire hitzak entzun bai, eta gorde ez, egiten dituen, Nik ez dut juzgatuko, mundua juzgatzera ez, baina salbatzera etorri bait naiz" (Jn 12,47). Mateoren eritzian, berriz, maitatzean ala ez maitatzean datza judizioa (Mt 25). Dena dela, bietan, nor bere burua juzgatzeko duela agertzen da.

Ik. Azken judizioa; Parusia; Gorengoak.

Hilen meza

Hildakoak gogoratzeko eta horien alde otoitz egiteko errito erromatarrak bereziki eraturiko formularioren (otoitz-, irakurgai-multzoren) bat erabiliz esaten dena.

"Rekieneko meza" ere esaten da, latinez Requiem hitzarekin hasten bait zen horrelako mezen sarrerako *antifona.

Ik. Hilera-erritoak.

Hilerria

Ik. Kanposantua.

Hileta-erritoak

Sin.: Heriotza-erritoak

Esanahi hertsian berriki hildakoari eskaintzen zaizkion *erlijioak eta jendaurreko *progua. Sarritan horrekin batera doa gorputza elizara eta handik hilerrira eramatea ere; horri ere hileta deitu izan zaio;

gaur, ordea, bereizi egiten dituzte sarritan, bereziki hirietan, elizkizuna eta hilotzaren hilerrira eramatea. Garai batean, ondarrata etorritako ahaideei eskaintzen zieten bazkaria edo otordua ere hiletaren barruan sartzen zen.

Kontzeptu zabala da, beraz, hileta: hilotzaren inguruan egiten diren errito, zereemonia eta ondra guztiak biltzen ditu. Ezberdinak izan ohi dira Herri batetik bestera eta erlijio batetik bestera hileta-erritoak, ezberdinak diren bezala heriotzondoari buruzko sinesteak. Funtsean horixe adierazten bait dute hilotzaren inguruan egiten diren errito guztiak: heriotzondoan nolabait bizirik irauten duela hildakoak.

Hileta-erritoak helburu hauek izan ohi dituzte: senideen, ahaideen eta lagunentzako atsekabea eta elkartasuna agertzea, heriotzaren kutsutik bizidunak garbitzea, hildakoa adiskidetzera, beste bizitzarako hildakoa prestatzea, haren alde otoitz egitea.

Gehienbat bi eratara desegin ohi da hilotza: osorik eta bere horretan ehortziz edo hobiratuz (*ehorzketa), lurpean usteltzekotan; errez eta hezurretara edo hauts bihurtuz (*erhauspena). Bi ohitura horiek dira nagusi.

Budismoak eta hinduismoak gorpuak erretzera jo du gehienbat; konfuzianismoak, berriz, ehorzketara.

Mendebaldean, berriz, kristautasunaren eta islamismoaren eraginez, ehorzketa nagusitu da. Grezian eta Erroman erhauspena zuten erabiliena.

Hilotzak desegiteko hirugarren bide bat zera izan da: hegazti harrapakariei eskaintzea. Ohitura horixe zuen *zoroastrismoak; eta antzeko ohiturak gordetzen dituzte oraindik Indian eta Ekialdeko beste herrialdetan.

Hainbat Herritan, *gorpuari ondoan janiak, pitxiak, armak eta bestelako tresnak utzi izan dizkiote: Paleolitoan, Kretan, Egipton, Mesopotamian, etab. Hilek horien premia zutela uste izaten zuten.

Egipton baltsamatu egiten zituzten gorpuak, uste bait zuten hildakoak beharrezkoa zuela gorputza benetan beste bizitzarako.

Otoitzak dira hileta-erritoetako beste elementu nagusietakoa hainbat erlijiotan. Kristautasunak bere biziko garrantzia eman dio hilen aldeko otoitzari; horrela horiei beste bizitzarako bidean laguntza ematen dietela uste dute kristauak. Eliza Katolikoak bereziki tinko eusten die sineste eta ihardunbide horiei.

Ik. Heriotza; Bitarterregua; Hilezkortasuna.

Paulo Agirrebaltzategi

Hilezkortasuna

Sin.: Hilezintasuna

Ez da berez erlijiozko kontzeptua, baina giza *salbamenaren helburuari oso lotua dago. Gizakiaren dohaina da, zeinaren kariatz hark, *heriotzaren ostean ere, nolabait bizirik irauten bait du. Baina hilezkortasuna eta geroko bizitza ez dago berdintzerik. *Berraragiztapena sinesten duten huindusitek, e.b., ez dute hilezkortasuna berorren esanahi hertsian sinesten. Heriotzondoko beste bizitzari buruzko sinestea gizon-emakumeek jatorrikoa dutela dirudi, historian zehar kultura guztietan, lehen alditakoetatik hasita, *hileta-erritoek eta hildakoenganako gurtzapenak erakusten dutenez. Sineste horren ulerpena, ordea, aski ezberdina da kultura, erlijio edo filosofia batetik bestera.

Horietako askotan gizaki osoarena da nolabaiteko geroko bizitza hori, eta biziera sor edo erdibizitatzat ulertzen dute hilezkortasuna. Horrelako sinestea agertzen da Itun Zaharreko liburu batzutan. Filosofia batzuren arabera, gizakiaren heriotzondoko bizitza ez da hertsiki norberarena, soziala baizik.

Baina gehienetan hilezkortasunaz hitz egiten denean, arimaren hilezkortasuna aditzen da; hori ere era ezberdinez, ordea. Zenbait filosofia izpiritualistaren arabera, arimaren hilezkortasuna horren aurre-izate edo aurreexistentziari lotuta dago, eta arimaren gorputzarekiko askapentzat ulertzen dute heriotza: horrela irakasten dute Platon-ek eta Origene-k. Bide beretsutik doa *berraragiztapenari eta metempsikosiari buruzko irakatsia ere.

Azkenaldiko *judaismoak (Kristo aurretikoak), *islamismoak eta *kristautasunak gorputzen *piztuerarekin batera aditzen dute arimaren hilezkortasuna. Kristautasunaren funtsezko sinestea piztuera da, Kristoren piztueraren arabera, eta horren funtzioan aitortzen eta ulertzen du arimaren hilezkortasuna. Piztuerak osotu eta gaudituz egiten du hilezkortasuna.

Elizaren historian zehar, behin baino gehiagotan agertu izan da uste-modurik, "baldintzapeko hilezkortasuna" deritzana: Horren arabera, arimak ez du berezkoa hilez-